

Ainara Ortega Barrenetxea (Hernani, 1981)

“Etengabe bila aritu beharra dauka, kulturen dabilenak”

Egilea: **Leire Goñi Iradi.**

Jarrera kontua omen. Berezkoa duenak, badu. Edo ikasi egiten du. Edo publikoaren erabakiz lortzen du. Etsita dagoela dio Ainara Ortegak, batzuetan. Baina kantatzeak lotura handia omen du norberaren izaerarekin, autoestimuaekin. Eta Ainara Ortegak zuzen, ozen eta indartsu; zintzo, errespetuz eta mimoz; goxo, ironiarekin eta emozioz ateratzen du ahotsa; olatu handi eta txikien artean izaera propioa duen irlatxoak dir-dir egitea lortu arte. Horixe bai dela, jarrera kontua.



Paper askotan ikusi zaitugu, baina, zer da Ainara Ortega. Abeslaria? Musikaria? Antzezlea? Idazlea? Irakaslea? Artista?

Idazteari heldu beharra diot, gordea daukat horri heldu beharra! Baina beste lanbide bati ekitekotan, miseria ekarriko duenik ez nuke hasiko. Xabier Mendigurenek esaten zidan, aukeratzekotan, miseriatik urruntzeko moduko lanbide bat aukeratzeko. Nik, denetik pixka bat, eta ezer ez! Zure burua hala behartuta ikusten duzu. Akaso, nik egingo nuke apustu, gauza baten alde, baina bistan da ezin dela. Musikariaren lana desagertu zen. Ez bada profesionalki jotzen duzula banda edo orkestra batean, ezin da musikaria izan. Azken 10-15 urtetako kontua dela esango nuke. Aktore, berriz, gaztetxotan iruditzen zitzaidan askoz ere zailagoa izango zela, antzerkia. Baina momentu jakin batzuetan askoz ere lan gehiago izan dut antzerkian, musikan baino. Uste baino egoera komikoagoak izan ditut.

2011ko ekainean Madrilen izan zinen 2016rako Donostiako Kultura Hiriburutzak lortu zezan defendatzen. Orduan desio izan zenuen moduan, “kulturalatik bizi garenontzat positiboa” izan al da?

Finalerdietara joateko eskatu zidaten, baina ezin izan nuen. Orduan Maria Berasarte abeslaria izan zen, Iñaki Salvador eta Kukairekin. Finalean, berriz, bai, izan nintzen, Kukaiko Jon eta Alain Mayarekin, eta aurrekontuak gehiagorako ematen ez zuenez, Iñaki Salvador, bideokonferentziaz! Oso polita zen ikusteko; tablet pila bat jarri zituzten bata bestearen segidan, eta horrela, Iñakik jotzen zuen pianoaren teklatu osoa ikusten zen. Eta Donostiako irabazi zuen! Baina ez dut uste kulturaz, edo urte osoa kulturatik bizitzen saiatzen garenon beharrak bete dituenik, Hiriburutzak. Maila askotan bai; amateur edo semiprofesionaltzat bai, seguru asko. Oihartzun handiko gauzak egin dira, eta profesionalak ere ikusi ditugu, gauza oso majoak, nahiz eta bakan batzuk izan. Ardura gehien sortzen duena da, gerorako zer utzi duen. Hor bai, nahiko kritikoa naizela. Uste dut ez duela ehundu, josi berriro ere sare bat. Sare sendo bat, aurre eta atzean lan egiten segi ahal izateko. Horrek ematen dit penarik handiena.

“Ez dut uste kulturaz, edo urte osoa kulturatik bizitzen saiatzen garenon beharrak bete dituenik, Donostiako Kultura Hiriburutzak”

Hala ere, lan dezente egin duzu 2016an: “Uda gau bateko ametsa”, Donostiako Jazzaldian abestu, “Mami Lebrun” antzezlan... Horren ondorio dira? Ala kulturatik bizi denak, halabeharrez, etengabe egiten duen lanaren ondorio?

Hiriburutzari lotuta zenbait irekiera-itxiera gala egin ditut, enkarguz eskatuta. Ez niri proiektu baten

bueltan enkargu jakin bat egin didatelako, baizik eta momentu batean gauza jakin bat egiteko eskatu didatelako. Azpimarragarriena “Uda gau bateko ametsa” izan da, eta egin dudana gauzarik berezi eta harrigarrietakoa! Eta zer eta, biolina jotzen eta kantuan! “Mami Lebrun”, berriz, hortik guztiz kanpo dago. Etengabe bila aritu beharra dauka, kulturari dabilenak. “Mami Lebrun” izan da bi eroren proiektua, antzerki konpainia bat sortzea erabaki dutena. Gaur egun, ez zait bururatzen erokeria handiagorik! Kepa Errastik egin zuen antzezlan idatzi, eta horren bueltan talde lan handia egin dugu; baita zuzendariak, Getari Etxegaraik ere.



“Uda gau bateko ametsa”, Donostia 2016. Aitor Beltran eta Ainara Ortega.



Donostiako Jazzaldian abestu zuen Ainarak, Hernaniko Musika Bandarekin, 2016 (argazkia: Hernaniko KRONIKA).

Bila aritze horretan, proiektu propioa eraikitzearen alde ere eginduzu: *Scat* kaleratu zenuen 2015-eko apirilean. Etiketak gustatzen zaizkizula eta, jazza dela esan zenuen... Horixe al da, Ainara Ortega benetakoa?

2014an grabatu eta 2015ean aurkeztu genuen, eta bai, *Scat* seguru asko da, ni etxean pijaman ikustea bezala. Irudipena hori da. Hurrena, Ainara dutxan izan daiteke! Ez dakit etiketak gustatzen zaizkidalako, edo jazzekoei sortzen zaizkigun konplexuek hori esatera bultzatzen nautelako, baina egitan sentitzen dut horrela. Konplexurik gabe esan nahi dut jazzeko disko bat egin dudala.



“*Scat* seguru asko da, ni etxean pijaman ikustea bezala”



Scat diskoaren aurkezpeneko argazkia: Hasier Oleaga, Mikel Andueza, Baptiste Techer, Ainara Ortega, Javier Mayor eta Iñaki Salvador.

Hain zuzen, jazza “deskubrimendu” bat izan omen zen zuretzako, “inprobisazioari lekua” uzten diolako. Kontserbatorioan deskubritu zenuen?

Biolina ikasten ari nintzela, 14-15 urterekin eza gutu nuen. Entzun nuen kasete bat etxean, eta ikusi nuen zein abaniko zabala zeukan, zenbat aukera ematen zituen, izen horren barruan zenbat estilo dauden. Begira, azkenean, jazza ez da etiketa bat; da jarrera bat. Askotan gospel klaseak ematen ari naizenean esaten diet ikasleei jarrera kontua dela, berdin duela zer ari garen egiten. Jazz oso deigarria egin zitzaidan erritmikoki. Erritmikak harrapatu egin ninduen. Beste estilo bateko kasetea izan balitz, akaso ez ninduen harrapatuko. Desberdina da 30eko hamarkadako Big Band bat edo Azid Jazz entzutea.

Egia esan, Kontserbatorioarekin kritikoa izan zara, baina zerbait ikasteko ere balioko zizun...

Kontserbatorio klasikoarekin naiz kritikoa, bai. Iruditzen zait irakaskuntzan jende gaztea sartuta ere, kasu askotan azaletik, aho txikiarekin esaten dutela metodologia berriak erabiltzen dituztela. Hala iruditzen zait, gero ikasle horiek etortzen zaizkigulako beste estilo batzuetakoei. Gaur egun musika klasikoan dagoen demanda zenbat urritu den oso sintomatikoa dela esango nuke. Nire kasuan, bi bizitza izan banitu bezala da: biolina ikasten nuenekoa, eta biolinaren ondorengoa. Hor egiten dut kritika. Diskoan, Chopinen kantuan, garai hartaz hitz egiten dut, Francisco Escudero Kontserbatorioan nengibilen garaiaz. Iruditzen zait irakasle askotxo estutasun batean bizi direla, eta ikasleok ere estututa ikusi nahi gaituztela. Baina beren segurtasun ezak dira. Beraien beldurrak. Modu berrietara irekitzeko gaitasun eza. Hori da, nire esperientzia, noski! Baina horrek min egiten zidan; beste musika batzuk mespretxatzeko bazeukatela uste zuten gailentasun horrek. Abestian boleroak aipatzen ditut, baina benetan, rantxerak nituen gustuko! Bachen konpas batzuen gainean egindako inprobisazioa prestatu, eta heretikoa banintz bezala hartu ninduten...

“Iruditzen zait irakasle askotxo estutasun batean bizi direla, eta ikasleok ere estututa ikusi nahi gaituztela”

Beharrezkoak dira ikasketak, ala gehiago da beharrezkoa izatea? Gero, intrusismoa ohikoa dela esaten da eta...

Oso zaila da mugak jartzea, erantzun argi bat ematea. Ez naiz inor eta ez naiz gai muga hori jartzeko... Baina erantzuten saiatuz gero, esango nuke nik bai sinesten dudala musika edota beste edozein arte --plastikoa, eszenikoa...-- lanbide bat bezala ikasi daitezkeela, ofizio bezala. Bestetik, zure ofizioaz gain, kontzeptu edo estilo bat bilatu eta jorratzen baduzu, eta publikoak erabakitzen badu artista zare-



Ainara Ortega Quartet Leokan, 2008ko Jabetze Eskolaren irekiera emanaldia (argazkia: Hernaniko KRONIKA).

la, halaxe zara. Hala ere, bereizten ditut ofizio daukagunok, nahiz eta ez duen zertan irakaskuntza arautuaren barruan egon behar. Ofizio pila bat ikasi daitezke hortik kanpo. Baina ofizioa ikasi nahi duenak, adibidez, irakaskuntza ikasten du, eta horren gainetik artista izan nahi bada, baita ere! Oso zaila da!

“Zure ofizioaz gain, kontzeptu edo estilo bat bilatu eta jorratzen baduzu, eta publikoak erabakitzen badu artista zarela, halaxe zara”

• Intrusismoak, berriz, niri ez dit molestatzen. Hau ere oso zaila da. Ni ere lanbide batzuetan intrusoa naiz! Baina formazio bat badaukat, eta segitzen dut ikastaroak egiten eta hara eta hona mugitzen. Zintzotasuna, justua izatea. Azkenean hori da, arduraz jokatzea. Bizi dugun sisteman, nire ustez onartezinak diren intrusismoak dira, irakaskuntzari dagokionez, diru publikoaren bueltan sortzen diren mugimendu misterioitsuak. Horrek molestatzen dit. Hor autoritatea politikoek daukate, diru publikoa haien esku badago. Eta eszenatokietako intrusismoan beste hainbeste; diru publikoa erabiltzen duten kultur etxe edo aretoetako teknikari eta programatzaileei eskatu behar genieke, haien lana ahalik eta modu finenean egitea. Batez ere, kontratazioak, baldintzak, legeak betetzea, caché minimo bat mantenduta eta gizarte segurantzian alta emanda! Badirudi gutxi batzuei ez dietela ikastaro hori eman...

“Bizi dugun sisteman, nire ustez onartezinak diren intrusismoak dira, diru publikoaren bueltan sortzen diren mugimendu misterioitsuak”

Musikenen, Jazz departamentuko aurreneko pro-moziokoa izan zinen. Hori ote arrazoa, hainbat proiektutan parte hartzeko aukera izanarena? Ainara Ortega Quartet, “Te doy una canción” proiektua, Vainen produccionesen haurrentzako antzerki musikatua, “Inalanbrikak”, Mikel Laboari omenaldia...

Musikenen garaikoak, lehenagokoak eta beranduagokoak dira. Kantatzen hasi eta profesionalizatzen hasi nintzen garaikoak ere bai. Kategoria horiek gaur egun desagertu dira. Gaur egun, programazio berean egoten gara denak. Ni profesionalizatu nintzen urte mordoxka batzuen ondoren, eta azkenean, lanak lanari deitzen dio. Batek nonbait ikusi zaitu, eta deitu egiten dizu. Gainera, zorionez, irakasle mordoxkarekin egin nuen lan, deitu egin zidatelako. Gure lanbidean askotan gaizki esaten dugu entxufez sartzen zarela nonbait. Ez dira entxufek; kontaktuak dira. Gure lanbidean, eta beste askotan, ezagutu egiten duzu jendea, profesionalak, ibilbide handia dutenak, antzerki konpainiak, soinu banda egileak...

Gogoratzen duzu lanen bat modu bereziagoan?
“Te doy una canción”. Oso berezia da. Izan zen gonbidapen bat, Iñaki Salvadorrena. Bere ikaslea nin-

tzen Musikenen, baina lehenago ere irakasle izan nuen urte pare batez, Musikenen sartu baino lehen. Bere klase batean aipatu zuen nola Musikene zabalduko zen. Bertan sartu aurretik, beraz, ibilia nintzen jazza ikasten. Hori da gaur egun jazzak daukan zulorik beltzena, estatu osoan. Ez dago erdi mailako jazz ikasketarik. Legeak ez du kontenplazten. Orduan, zer? Klaseak jaso, partikularrak, mintegietara joan... Horrela iristen gara goi-mailako sarrera proba egitera! Ibilbide horretan ezagutu nuen Iñaki, eta Musikenen nengoela gonbidatu ninduen. Bere asmoen berri kontatu zidan, baina lehenengo boiloari ezetz esan nion. Urtetan eta urtetan hainbeste miretsitako musikari puska batek aukera eskaini zidan eta ezetz esan nion, ez nengoela haren mailan. Eta jakina ez nengoela! Lehendabiziko emanaldia Lesakako erreka gainean, 2004ko San Joan bezpera egunean izan zen! Ez zait ahaztuko! Hernaniarrontzako, pentsa! Gogoratzen dut nire logelan nengoela arropa eta partiturak prestatzen, eta negar zotinka! Emozioarekin, ezin sinistuta! Ama sartu zen, Iñaki berehala etorriko zela-eta, ni mugiaraztera. Ni nire 23 urterekin, buelta eman, eta amak ikusi nindueanean... Iruditzen zait atzo izan zela! Oraindik Musikeneko bigarren mailan ariko nintzen. Proiektu horrekin urteak egin genituen; bost urte bai. Lan dezente. Ehunka esan nuen orain gutxi, eta agian gehitxo izango da, baina gertu ibili ginen. Zen disko bat oso polita. 2009an grabatu genuen gero. Kantautoreen abestiak, Iñakiren moldaketak, inprobisazioak eta olerkiak nahastuta: Sarrionandia, Eduardo Galeano, Benedetti... Jendea ateratzen zen hunkituta. Orain entzun eta oso gaizki kantatzen nuela iruditzen zait! Nire burua bideotan ikusten dudanean...

“Gaur egun jazzak daukan zulorik beltzena da, estatu osoan ez dagoela erdi mailako jazz ikasketarik. Legeak ez du kontenplazten”



Iñaki Salvador eta Ainara Ortega.

Hobetu duzun seinale!

Eta hobetu nahi duzun seinale! Zure buruarekin konforme bazaude... *¡Mal asunto catalán!* esaten zuen gure amonak. Badaukat bideo bat, TVE2 katean ateratakoa, jazzaldian jo genueneko. Ni gaxte-gaxte, flekilloa “euskaldunen eran”. Txukun kantatua dago, ados. Baina beheko ezpaina, kieto. Egungo couch bat banintz, emango nizuke... Gero ikasi egiten duzu. Beheko ezpaina mugitu gabe aritu nintzen, ez dakit zer neukan buruan. Agian, euskaldunok daukagun behar hori, gaztelaniaz kantatzean gure azentua ezkutatzekoa; /s/ eta /t/ oso fuerte ahoskatu eta leundu behar hori. Gerora, ikasle partikularrei begira, ikusi ditut nigan ikusten nituen gauza asko, eta konturatu naiz, hainbat ikastaro egin eta hainbat profesionalekin ikasi ondoren, zenbateraino dagoen lotuta kantatzea norberaren izaerarekin, oztopoekin, autoestimuaekin.

Bidelagun izan dituzu ibilbide horretan hainbat musikari: Hasier Oleaga, Iosu Eizagirre, eta nabarmen, Iñaki Salvador. Tandem ederra osatzen duzue.

Hasier Oleaga niretzako da anaia bezala. Iñakirekin batera hasi nintzen berarekin ere. Iñaki nabarmentzen da, baina egia da biak ditudala anai, eta Jabier Mayor ere bai. Badaramazkigu elkarrekin 10 urte-edo. Nik bestelako musikaririk ez dut nahi ondoan! Baina ez da musikagatik bakarrik. Uste dut musika berdin zaigula! Batez ere da umorea, kolore guztietakoa; beltza, horia, arrosa, surrealista... Bazuetan ahaztu ere egiten zaigu zertarako elkartu garen! Uste dut aitzakia izaten dela. Garrantzitsuen da gu elkartzea, musika egiteko, eta gero pentsatzen dugu zer forma eman.

Baina kulturatik bizitzea ez da erraza, ez omen da baloratzen... Zer gertatzen da? Euskadiko Musikari Elkartearen sartu zinen, zuzendaritzan, baina utzi ere egin duzu... Txarra da egoera?

Musikariak gaur egun ez du ezer balio. Iñaki eta Hasierrekin lotuta, guretzako, ardura handia sortzen ziguna zen musikariok ez gaudela elkartuta, aktoreak bageunden bezala, EAEn. Oraindik ere gure artean errezeloak sortzen ditu elkarte baten parte izateak. Horren atzean iruditzen zait dagoela indibidualismo handia. Interes propio asko. Solidaritate gutxi. Aurreiritzi asko xamar. Azken batean, bateratzeko gogo gutxi. Ardura hori partekatu dut Hasier eta Iñakirekin, eta beste hainbat musikarirekin. Orain dela gutxi arte Musikarin zuzendaritzan izan gara elkarrekin. Musikariren arduretako bat da, Jabier Muguruzak esaten zuen moduan, amateur eta artista handiak direnen artean geunden musikari horiek guztiok osatzen genuen haize kamara hori erori egin dela. Irudia ikustea brutala da. Badaude ikaragarritzko izarrak, eta gero, hasten ari direnak. Ekimen pila bat dago hasten ari diren taldeak bul-

tzatzeko. Baina talde guztiarentzako 100 euroren truke. Hasten ari diren horientzako seguru asko garai politak izango dira horiek. Baina beste guztia desagertu egin da.

“Amateur eta artista handiak direnen artean geunden musikari horiek guztiok osatzen genuen haize kamara hori erori egin da”

Horretan guztian zerk behar luke Musikariren ardura? Zergatik erori da kamara hori guztia? Gizartearena ote, errua?

Whatsapparen garaian bizi garelako! Dena da mp3, whatsapp, youtube... Orain gutxi esaten zidan lagun batek, antzeppen baterako sarrerak 3 euroan jarri eta publikoa kexa zela, asteburuetan normalean 2 euro eta erdi izaten zelako. Musikariren papeira zein den? Ezin du irakasle papera egin! Baina zenbait forotan parte hartu eta musikarion hitza eman bai. Foro garrantzitsuenetakoa da Eusko Jaurlaritzako Musika Bulegoa, hor egiten baitugu topo musikaren industriarekin. Grazia egiten dit kontzeptuak... Salak, teknikariak, diskoetxeak... Horiek denak. Nahiko etsita nago! Neronek pasa dut urtebete

partiturak idazten, moldaketak osatzen, musikariek entseatzeko, inprobisazioa edo armonia ikasten, diskoa ahalik eta tajuzkoena izan dadin, eta konturatzen zara mundua eta kapitalismo honen abiadura, askoz azkarragoa dela. Artista batek esaten zidan bezala, pasatzen duzu urtebete lanean idazle batek bezala, eta gaur egungo gizarteak eskatzen dizu bi hilabetetan beste zerbaitekin, eta hori, ez dago jasaterik.

Etsipen horretatik ateratzen lagunduko zizuten ba, zure ibilbidean zehar lortutako hainbat sarik: Max sarietara izendapena Vito Rodriguezekin, “El club de las mujeres invisibles” antzezlarekin; EHUK antolatutako Musika Saria ahizparekin, Mikel Laboaren omenez antolatutako lehiaketan; Imanol Cover saria, Imanol Larzabal kantariaren omenezko lehiaketan... Horiek denek badute ondoriorik? Lan aukerak sortzen dira?

“Inalanbrikak” izan zen egin nuen lehendabiziko antzezlana, potxolada bat. Oraindik asko gogoratzen dira, umetan ikusi zutela-eta. Musikari Saria ere ederra izan zen, Mikel Laboaren omenez. Baina lana ekarri? Zipurrik ez! Badaukat pasadizoa, Imanol Cover saria dela-eta. Irabazi eta hurrengo egunean



Laboari egindako omenaldian, 2009an, Joana Ortega ahizparekin (argazkia: Hernaniko KRONIKA).

neuzkan 6 dei-galdu, Euskadi Irratiko saio batetik, beraiek antolatzen baitute sariketa. Gerora pasa dira sei-zazpi bat urte, eta ez didate emailik ere erantzuten. Goiz batean sei dei, eta hurrena... Hor ikusten duzu, azkar, kolpe batean, zein den errealitatea. Euskal Herrian musika egiteko aukerak eta zure musika nonbait sumatzeko aukerak oso itxitura estuak ditu. Rock and rollak ez badu dirurik ematen... Eta asko eman du! Diru asko mugitu izan du aurreko urtetan, eta uste dut jendeak ezin duela imajinatu ere egin garai hartatik zenbat jende bizi den oraindik! Haien eskubidea da, noski! Egile eskubideak dira, eta babestu egin behar dira! Baina rock and rollak ez badu dirurik ematen, pentsa, nire etiketak!



Musika Saria, 2010ean.



“El club de las mujeres invisibles” antzezlanaren Biterin eman zuteneko argazkia, 2010ean (argazkia: Hernaniko KRONIKA).

“Euskal Herrian musika egiteko aukerak eta zure musika nonbait sumatzeko aukerak oso itxitura estuak ditu”

Horregatik sortu zenuen Inalanbrika Musika eta Antzerki Eskola; artista orok behar duen sostengua? Ala irakasle papera ere gustukoa duzu?

Bizirauteko bada. Orain nire bizitza oso surrealista da. Gospelaz bizi naiz! Egia da gospelak eta musika modernoa deitzen zaien beste estilo askok badaukatela jatorria musika beltzean. Beraz, gospelak ez zait arrotza. Bururatu zitzaidan hutsune bat sumatzen nuela, eta ikasleei azaltzen diet batzuetan, sortu nahi izan dudala, ni haien lekuan nengoenean jaso nahi izan nuen ikastaro edo abesbatza. 14 urterekin, pentsa, 1995 urtean, hemen gospelak bilatzea ezinezkoa zen! Eta horrela bizi naiz; gospelak eta

bakarkako klaseak emanez, eta deitzen didatenean bestelako tailer batzuk emanez. Horrek lagundu egiten dit, baina irakasle papera ere asko, ikaragarri gustatzen zait. Gospel taldean, adibidez, bagara 20 bat lagun, eta gustatzen zait lortzen dugun familia sententzia. Esaten didate nik lortzen dudala hori. Atea itxi eta libre sentitzen gara. Seguru asko da, hasieran aipatzen nuen jarrera kontu horregatik. Ez dakit fundamentuz egiten dugun zerbait, baina a zer showak! Bakoitzak baditu bere miseriak, oinazeak eta gaitzak, eta esaten didate hau terapeutikoa dela beraientzat; bi ordutan ez direla ezerekin gogoratzen. Batzuetan emozionatu egiten naiz!

Eskolatik pasatzen diren ikasle horien artean, artista izango denik badaukazu?

Batzuk badira. Oso perfil desberdinak daude. Armonia, inprobisazioa, armonia modernoa, bakarkako ahots teknika eta gospelak ematen ditut. Aktoreak etortzen zaizkit, ahotsa landu nahi dutelako. Eduki ditut ikasle mordoxka bat, Musikenen sartzeko prestatu ditudanak, jazzean, eta gehientsuenak sartu dira. Gospelak egiten dutenen artean, berriz, aurrekoetatik badago, baina batez ere, koroetan esperientzia itogarri xamarra izan dutenak daude. Ez zen haien estiloa edo libreago sentitu nahi dute. Bestalde, badaude abeslari bezala oso interesgarriak direnak, eta ziur gerora haien izena entzungo dugula.

Irakasle lanean ere, bueltan-bueltan, jazzak ere badu bere pisua...

Ez du zertan. Ikuspegi desberdin batetik azaltzen duzu musika, musika modernoaz ari zarenean. Ez dakit berriro ere jarrera kontu hori ez ote den. Nire ustez, dena dago bideratuta musika modernora: pop, reggae, soul, funky, blues... Armonia modernoarekin gertatu zait, ikasi dudanean ulertu ditudala aurretik Kontserbatorioan jasotako armonia klase guztiak. Armonia modernoa azaldu zidatenean egin nuen atzera, eta era berean, ikusi nuen ulertu eta gozatu nezakeela, oinarri-oinarrizko gauzak aitak erakus-



Inalanbrika musika eta antzerki eskolan, 2017.

ten zizkigulako. Klasikoa ikasten ari nintzela, ez nuen piperrik ulertu. Aitak azaltzen zizkigun bestelakoak; kaleko musika, txaranga, aterarazten zizkigun akordeak... Baina ez nuen uste gauza berarekin ari ginenik. Gero, armonia modernoa ikasitakoan, konturatu naiz ulertu dezakedala klasikoko armonia, azkenean gauza bera baita.

“Armonia modernoarekin gertatu zait, ikasi dudanean ulertu ditudala aurretik Kontserbatorioan jasotako armonia klase guziak»

Eta atera da, azkenean! Bai aita eta bai ama, musikariak dituzu. Horrek bidea errazten du?

Amak 35 urte edo gehiago daramazki pianoa eta musika irakasten, eta aitak aurten 47 urte egingo ditu kalean jotzen. Uste dut horrek badaukala, laburtuz, gauza bat oso ona eta beste bat oso txarra. Ilunena da, nire kasuan behintzat hala sentitzen dut, etsipen sakonagoa sentitzen dudala, ikusi dudalako lanbide bat izan dela. Aita izan balitz kamioi gidaria eta ama sukaldaria, irudituko litzaidake gauza asko egiten ditudala, eta egia da. Baina musikariak izanda, nik badakit gurasoen etxean telefonoak nola jotzen zuen egunero; dena zen lana! Gero, alde ona da, eta hau ahizpari eta bioi transmititu digute, oso gauza naturala dela musikaria izatea, eta ego eta inbidiek ez dutela lekurik. Besteek esan behar lukete, baina uste dut ahizpa eta biok ez dugula horrelakorik. Txoro-haize hori. Artistaren kapaxo hori, kalean goazenean. Amak esaten du txaloak direla hori eragiten dutenak, eta azkenean, apurua ere pasatzen dut txalo egiten didatenean!

“Ahizpari eta bioi transmititu digute etxean, oso gauza naturala dela musikaria izatea, eta ego eta inbidiek ez dutela lekurik”

Gauza askotan ibili arren, esan daiteke jazza dela zure habitat naturala?

Ezetz ba! Utzi egin dudala!

Utzi al daiteke?

Egia esan, ez. Arrak bezala harrapatzen gaitu, eta kasu guztietan hala izaten dela uste dut, jazzarekin. Musika klasikoan, mordoxka bat ezagutu ditut utzi dutenak, eta hori bitxia da!

Orduan, badaukazu eskuartean proiektu berririk?

Asko! Amore ematekotan nintzen baina... mordoxka bat! Eguneroko kontraesanak! Utzi egingo dut, ez... Beno, musikak utzi nau ni! Baina buruan txori pila bat daukat, eta kaiola ireki egin behar da, txori bat askatu eta berriro ixteko, eta gero beste bat. Bestela, erotu egiten da bat! Buruan daukat, adibidez, eta jazzari lotuta, ia beti gizonezkoak hartu duen paper bat okupatzeko asmoa. Bestalde, musika arina esaten zitzaien hori ere egingo nuke, burua deskantsatzeko, eta ikusteko, gai ote naizen jendearengana iristeko beste kutsu bateko musikarekin. Eta beste amets bat litzateke, mileurista izatera iristea, eta oporrrak ordainduta edukitzea!

LABURREAN

Txikitako amets bat, egi bihurtu dena.

Denak eta gehiago!

Zure idoloa.

Gutxirekin konformatzen dakien edonor.

Gustuko kolorea (horiak zorte txarra dakar, benetan?)

Horia erabili nuen lehendabiziko antzezlanean!

Hernaniko txokorik gustukoena. Eta Hernanikoa ez den beste txokorik?

Hernanin, etxeko pianoaren txokoa. Kanpoan, Miramar Jauregia, dauzkadan oroitzapenengatik.

Talismana.

Ella Fitzgerald-en argazki bat; karteran daramat 19 urte nituenez geroztik!

Superstizioso da artista, ezinbestean?

Ni ez. Baina aktore asko bai; hala ikusi dut.